

Euskararen Eguna(k)



Abenduaren 3a: Euskararen Nazioarteko Eguna LAUDIOK EUSKARAZ MAITE ZAITU

Azaroaren 27a, astelehena. *Aupa Etxebeste* filmaren emanaldia LHUIren zinema aretoan. Ikasleentzako saio hertsia 10:00 eta 12:00etan eta beste saio bat 19:00etan jende guztiarentzat.

Azaroaren 29a, asteazkena. Hitzaldi-ikastaroa bakoitzak bere *blog*-a (web pertsonala) egiten ikas dezan. Udaleko hitzaldi aretoan 19:00etatik aurrera. Ekitaldia Interneti zuzenki konektaturik egingo da tresna informatiko hau osatzeko beharrezko pausuak zuzen zuzenena ikusteko.

Azaroaren 30a, osteguna. *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filmaren emanaldia LHUIren zinema aretoan. Ikasleentzako saio hertsia 10:00 eta 12:00etan eta beste saio bat 19:00etan jende guztiarentzat.

Abenduaren 1a, ostirala. 12:00etan herriko eskolen kontzentrazioa Herriko Plazan. Adierazpen bat irakurriko da, zenbait abesti abestuko dira, bertsoak, etabar. ekitaldiaren amaiera gisa Urkoren *Guk euskaraz, zuk zergatik* ez abestuko delarik.

Abenduaren 2a, larunbata. 11:30etatik aurrera, Aiera Kantzelaria Institutuaren kantxa estalian, ume txikientzako ekitaldia *Kulkiren* eskutik. Euskal herri kirolarekin erlazionatuko eta musikaz girotutako jokoak egingo dira, etabar.

Arratsaldean, 16:30etatik aurrera eta toki berean, *Kirikiñok* eskainitako jokoak eta tailer didaktikoak ume txikiak alaitzeko. Honetaz gainera txokolatada bat egongo da aurkeztutako guztien artean.

20:30etan Lamuzako Done Petri elizan, Andere abesbatzaren euskal abestien emanaldia.

21:30etan Herriko Plazan, Markos Untzeta abeslariak bere amodiozko kantuek ekarriko dizkigu bere emanaldian.

Abenduaren 3a, igandea. Euskararen Nazioarteko Eguna. Herriko Plazan, eguerdiko 12:00etatik aurrera, Sagardo Jaia, kupel ibiltari batekin eta bertsolari eta trikitiarekin. Gainera herriko kaleetatik zehar 12:00 eta 14:00 artean Audioko *zanpantzarrek* eta euskal musika tradizionaleko *Fi ta Fik* taldeak zenbait kalejira egingo dituzte, eta 13:30etan *Itxarkundia* taldeak dantzak eskainiko ditu.

Abenduaren 7a, osteguna. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokara joateko autobusak dohainik. Bi irteera egongo dira: 12:00 eta 16:30etan, eta itzultzeko, azokatik irtengo dira 13:30 eta 19:30etan hurrenez hurren. Autobusetan jarlekua gordetzea beharrezkoa izango da, 94 403 4890 telefonora deiturik.

Abenduaren 11, astelehena. 16:00etatik aurrera Euskaltzaindiko Onomastika Batzordearen bilera Udaletxean.

19:00etan, Iruña-Veleian izandako aurkikuntza arkeologikoei eta euskararen historian berauek suposatzen duten iraultzari buruzko hitzaldia, Henrike Knör katedradun eta *euskaltzainak* emana. Udaletxeko hitzaldi aretoan.

Abenduaren 13a, asteazkena. Aiaraldeko gazteei eta euskarari buruzko hitzaldi-solasaldia, Aiarako Koadrillako Euskara Teknikariaren eskutik. 19:00etatik aurrera udaleko hitzaldien aretoan.

Abenduaren 14a, osteguna. Herriko toponimia eta beste zenbait alderdi jorratzen dituen udalerriko mapa berriaren aurkezpena. 19:00etatik aurrera udaleko hitzaldien aretoan.